

Kontsumitzaileen aroa iritsi da

POBREZIA ENERGETIKOA

ADITUEN ESANETAN



OIER ETXEBARRIA GOIENER
ARGAZKIA: JULIAN HOCHGESANG

2021. urtean zehar, batez ere, udaz geroztik, energiaren prezioa eta argindar merkaturaren egunero salerosten dena, bereziki, ia egunero titularretan ikustera ohitu gara. Igo eta igo dabil, inork balazta jartzeko gaitasunik ez balu bezala; aurreko urtean 40 euro/MWh inguruan zegoena 2021 amaieran eta 2022 hasieran 200 euro/MWh-tik gora dago. 2021ean zehar, behintzat, etxeko fakturretan ez da askorik islatu, Gobernuak hartu dituen neurriengatik*, baina badaude ikaragarri sufritu dutenak, eta, are gehiago, faktura noiz etorriko beldurrez daudenak. Epe motzera, hobetzeko zantzurik ez dauka egoerak, eta, Gobernuak neurririk hartzen ez badu, urte hasierako aldapa izugarri gogortuko da argindar fakturak etxera heltzen direnean.

Uste duguna baino gehiago
Gehienontzat ezezaguna bada ere, gure artean badaude energia kontsumoak pobretu egiten dituenak, dituzten diru sarrerekiko energia fakturak ehuneko handi bat hartzen

dienak. Badaude etxean temperatura egokia mantentzeko zailtasunak edo ezintasunak dituztenak, berotze sistema desegokia dutelako edo etxearen sabaiak, lurrak, paretek, leihoek edo atek kanpoko hotzetik babesten ez dituztelako. Badaude janaria edo etxea berotzearen artean aukeratu behar dutenak, denerako helduko ez zaiela dakitelako. Eta badaude fakturak heltzen direnean ordaintzeko zailtasunak edo ezintasunak pairatzen dituztenak ere. Horiek guztiak dira pobrezia energetikoa bizi direnak. Uste duguna baino askoz pertsona gehiago dira egoera hau pairatzen dutenak.

Egoera horretan bizi diren batzuk bonu soziala jasotzeko baldintzak betetzen dituzte, baina, horri buruz ez dakitelako edo ezin dutela jaso esan dietelako, ez dute eskatzen edo ez dute egin beharrekoa egiten bonua jasotzeko. Bonua daukatenek argindarraren fakturretan %25 eta %40 arteko hobariak jasotzen dituzte, eta, berokuntzari dagokionez, bizi diren tokiaren eta zaurgarritasun egoeraren arabera, urtean 67,56 eta

123,94 euro bitartean jasoko dituzte. Hori bai, biak ala biak jasotzeko, araututako merkaturatzaile batean egon beharra dago; merkatu libreko merkaturatzailearen baten dagoenak ez du bonu sozialik jasoko.

Irabaziak, guztiaren gaintetik

Jakina da energia enpresa handiek irabaziak mantendu eta handitzeko beharrak dituztela eta, kosta ahala kosta, horretara bideratzen dituztela hartzen dituzten erabakiak. Merkatu librean dauden enpresa handien merkaturatzaileek nahiko fama txarra hartu dute azken urteetan, araututako merkaturatzaileetatik atera dituztelako bezero asko eta asko, hobariak eta zerbitzu gehigarriak emateko aitzakiarekin. Bonu soziala jasotzen zuten askok, merkatu araututik atera direlako nahi barik, bonu soziala galdu egin dute, eta asko berreskuratu gabe geratu dira. Pobrezia energetikoa pairatzen dutenak bost axola zaizkie enpresa handiei, euren irabaziak guztiaren gaintetik baitaude. Noiz arte iraungo du honek? Merkatu librean, dena den, badaude irabazi asmorik gabe



**USTE BAINO ASKOZ
HERRITAR GEHIAGO
BIZI DIRA POBREZIA
ENERGETIKOAN**

diharduten merkaturatzaile batzuk. Bonu sozialik ezin dute eskaini, baina ematen duten zerbitzua zintzoa da eta euren marjinak ahalik eta estuenak dira, bezeroa erdigunean daukatelako.

Energia komunitateak

Aldi berean, Europatik haize berri bat dator, eta, oraingoan, herritarrak ahaldundu eta enpresa handien atzaparretatik ateratzeko

bidea zabalduko digun aukera bat dira: Energia Komunitateak deitu diete, eta energia trantsizio justua egiteko baliabide ezin hobeak dira. Nazio Batuen Erakundearen (NBE) adostu ziren Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) zazpigarrenak dio energia merkea, segurua, iraunkorra eta modernorako sarbidea bermatu behar dela. Betikoan esku uzten badugu, irabaziei

lehentasuna ematen jarraituko dute, eta, GJHak bete edo ez, bost axolako zaie. Kontsumitzaileen eta herritarren garaia heldu da; oihaneko legeari muga jarri behar diogu eta gure esku hartu itsasontziaren lema. ■

*Testu hau idazteko unean, 10 kW-tik behera kontratatuta daukaten hornidura puntuatarako balio dute Madrileko Gobernuaren neurriek; 2021eko abenduaren 31 arte zeuden indarrean.